· ERREPORTAJEA EMAKUMEAK BASERRIKKO LANETAN · GEHIGARRIA EUSKALTEGIETAN ARIGERA
·BERBETAN AINARA GARCIA ETA AINARA ETXEBERRIA

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko martxoaren 8a/X. urtea/396. zkia



MARTXOAK 8, EMAKUME LANGILEAREN EGUNA

## "Emakumiak falta dian baserrixetan igarri eitxen da"

*Rosa Mari Salegi, baserritarra*





**ITURAIN & ASOC.**
**CONSULTING GROUP**

# ELGOIBARKO ERDIGUNEAN

## Leku Ederrena



- ETXERIZITZAK
  . 2, 3 ete 4 logele
  . Egongeklangele
  . Sykoldee
  . 2 beinuple.



- GARAJE PLAZA ITXIAK
- KOMEKTZIOKAKO LOKALAK
- KALITATEZKO ERAIKUNTZA
- ORDAINKETARAKO ERRAZTASUNAK

PROMDZIOA sta SALMENTA Mans, S.A.
Tronbidearen Zumardia 13-15 - AZKOIT1A
Tel. 943 157 007 - 609 473 933

INFORMAZIOA Ituraln & Asoc.
San Frantzisko, 44 - Tel. 943 748 801
Tel. 670 412 073



## Fama

Nerabeek handitan "famatua" izan nahi dute. Horratx ofizio berria, aizue. Garai batean, lanaren ondorioa zen fama. Orain, aldiz, fama helburua da. Jendeak telebistan agertu nahi du, aldizkarietako erretratuetan, ikusentzuleen idolo bihurtzea eta esklusibak salduz bizitzea. Berdin dio horra iristeko bidea zein den: Gran Hermano, Confianza Ciega, Operaci6n Triunfo, Esta es mi gente.... Kontua, aurpegi ezagun bihurtzea da. Zertarako eskola, institutu eta unibertsitateak? Zertarako masterrak eta ingeles ikastaroak atzerrian? Askozaz errazagoa eta azkarragoa da casting batera aurkeztu eta.... zorte apur batekin telebistako saio batean agertzea. Telebistan agertzen ez dena ez baita ezer, ez baita inor. Telebistan agertzen ez dena ez baita existitzen. Hori sinesten du askok.

Pena da. Gazte askok fama eta arrakasta nahasten dituzte. Fama olatu bat da, etorri den bezala desagertzen dena. Arrakasta lortzeko, ordea, talentua, lana eta zortea, hirurak korapilatu behar dira. Askoz zailagoa da. Baina gehiago irauten du eta, batez ere, askoz garrāntzitsuagoa da, nor bere buruarekin gustura egotea esan nahi duelako arrakastak.

11) Cn o o .

> "Telebistan agertzen ez dena ez da ezer, ez da inor. Telebistan agertzen ez dena ez da existitxen"

Jasone Osoro



## Irakurzaletasuna zenbakitan

Joan den ostiraleko Egunkariak kultura atalean zekarren berri baten izenburua deigarria iruditu zitzaidan. "EAEn hamar herritarretatik hiruk euskara dute leitzeko hizkuntza" zioen. Hamarretik hir& Seiehun mila euskal irakurle Euskal Autonomia Erkidegoan! Beno, harridurak segundo batzuk baino ez zituen iraun. Gainontzekoa irakurtzen hasi eta berehala ikusi nuen berriaren izenburua Euskadiko Editoreen Elkarteak eginiko inkestaren emaitzen adierazle pobrea zela. Inkestaren arabera EAEko hamar IRAKURLETATIK hiruk erabiltzen omen dute euskara irakurketarako hizkuntza gisa eta denok dakigu EAEko irakurle guztiak herritarrak badira ere, EAEko herritar guztiak ez direla irakurleak. Hain zuzen ere, (hamasei urtetik gorako) EAEko herritarren %5ak irakurtzeko ohiturarik ez duela zioen delako inkestak. Horrek hogeita hamar mila irakurle gutxiago esan nahi du. Baina berria irakurtzen jarraitu eta zera ikusi nuen, liburu eta aldizkariak irakurtzen dituztenak irakurlegoaren %52,5 besterik ez direla, gainontzekoek egunkariak (irakurleen %23ak kirol prentsa) aukeratzen dituztelarik. Honen arabera euskal liburu eta aldizkariak irakurtzen dituzten EAEko herritarrak hirurehun milara ez dira iristen. Bestalde, inkestak zera zioen, hauetako bi herenek (berrehun mila irakurlek) berdintsu irakurtzen duela euskaraz eta gaztelaniaz, eta heren batek (ehun mila irakurlek) tarteka erabiltzen duela euskara. Beraz, euskal idazleentzako oharra zera da: "EAEn hamar herritarretatik batek euskal liburu eta aldizkariak irakurtzeko ohitura du eta beste batek tarteka egiten du".

> "Euskal liburu eta aldizkariak irakurtzen dituzten EAEko herritarrak 300.000ra ez dira iristen"

Alberto Ansuategi

~111ffillr

Kexak ........................................ 5

rnOtZ MOtZ ........................................ 8

gehigarria ........................................

klizoiAk

aGencla

### iirruzunoren begi ezkutua

# Izarren hautsa



"Horrelakoxea da bizitza.... izarrak ere itzali egiten dira" esaten zion bere b uru ari. Egunerokotasunaren iluntasunean aurkitutakoak, espero ez eta zast, bapatean azaldutakoak.... bai, izar horiek ere, noizean behin, itzali egiten dira. Hurrengo goizean, goizean goiz, ohikoa zen bezala, kotxearen bila joan zen. Merkatura joateko. Eta bapatean, renault txuria... ez zen jadanik txuria!!!! grisa?? Gauza da hautsez eztalia zegoela, hauts mehe, leun batez.. hauts berezi batez eztalia,., eta berriro ere, bapatean, zera pentsatu zuen... hau zer ote? Izarren hautsa agian???

Eguzkble Aranbarri

## MANIPULAZIOA HITZEN BIDEZ

Horixe ari gara ikusten azken denbora honetan. Hitzaren esanahiaz jabetuz, errealitate birtual bat ipintzen digute komunikabideek begien aurrean, agintari politikoen komenientziaren araberakoa. "Fenomeno" hau maiatzak 13ko hauteskundeak baino 1ehenago hasi zen eta Ibarretxeren ekipoak diseinatua dirudi egoera berriari aurre egiteko. Lizarra-Garaziko edukiak bereganatuz: elkarrizketa eta negoziazioa, Autodeterminazio eskubidea (euskaldunok gure etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea) izan ziren Ibarretxeren kanpainaren oinarriak. Lelo zabalak, jende gehienak onartzeko modukoak, baina praktikan ezerezean gelditu direnak. Elkarrizketa denekin, Batasunarekin ezik. Autodeterminazioaren eskubidea, azkenean, hiru probintziatarako kontsulta mehatxuetan gelditu da, bere interes politikoaren araberakoa: Madrili "kontuz, kontsulta egingo dugu", Ezker Abertzaleari "kontuz, ETAren aurkako kontsulta bat egingo dugu". Ondorioa: Elkarrizketa, Autodeterminazioa. Herri kontsulta... hitzek beren esanahi zuzena galdu dutela. Hizkuntzaren prostituzioa edo manipulazioa. Orain, eta "aniztasuna"-ren terminoarekin, berdina gertatzen ari da. Ibarretxek, EUDELen bidez, "algodoiaren froga" pasatu nahi dio Batasunari: Aniztasuna errespetatu behar du Batasunak, bestela guztiz isotatu eta erasotu behar da. PPk eta PSOEk sinatua duten itun antiterroristan espreski ukatzen dute konstituzioa eta autonomia estatutotik inolako alternatiba politikorik posible denik. Ba al dago "aniztasunaren" aurkako eraso handiagorik? Ez dago proiektu politikorik konstituziotik kanpo horien arabera, baina Ibarretxe mutu dago. Hemen, hitzen esanahia ere PP eta PSOEren interesen arabera egiten da eta Ibarretxek "eskribaren" papera egiten du. Eta orain Espainia bakarra agintzen duten PSOEkoek "gizateria da gure aberri bakarra" esaten digute. Dios! Bukatu dadila hau laster, bestela ez dugu jakingo nola komunikatu-eta!

P.M.
NAN 15357275

1;

ASTEKARIA

**BaRRen**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
tf 943 74 41 12
Publizitatea:
2 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGrARATZAILEA
Elgabatko Izarra

LADIRMAILEA Elgoibadea Udala ZUZENDARIA Eli Aizpuru KAZETARIAK I rati Agiaeazaldegi, Asier Orbea PuaUZITATEA Amaia Erkizta MAKETAT7AILEA Iker Diego ADMIESTRAZIOA Amaia Rodrigez GEREBITZIA Jon Peli thiguen KOLABORATZALEAK Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Efustondo, Alberto Ansuategi, Edu me Bilbao, Gotzon Aniela, Lorea Penzz da Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanho Gorastiza, Ajntroa Andonegt, Kokoe K.E. ela Urruzuno L.T. AZALERO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren lizurutik INPRIMATEDIA Gertu Koup. E. TIRADA 4.025 ale LEC1E DORDA1LUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ek; ELGOIBARKO IZARAA

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kubura* Saifak *eta Foru Aidundiak diraz lagundatako ablizkaria.*

res kutxa
tiker

DANOBAT
WOULIMS HEPRAMBENTA

5[1] GOITI 4,' 1.§TABTA
GRUPO DANOBAT

## KEXAK

• Mutil batek deitu digu honakoa esateko: "Domeka goizean, lasai-lasai geunden herriko taberna batean, trago bat hartzen. **Ertzainak** sartu eta kanpora aterarazi gintuzten. **Katxeatu** eta ezer topatu ez zigutenean, berriro ere tabernara sartzen laga ziguten, ezer pasatu ez balitz bezala. Hoiek ez dira moduak ezer konpontzeko".



• Herritar batzuk honakoa salatzeko idatzi digute: "Gure **herrian izugarrizko zakarrontzi eskasia** dago eta hainbat lekuetako egoera penagarria da. Adibidez, Madalan dagoen gozodendaren aurrealdean, Plaza Handian... Auzo berrietan ere ez dago zakarrontzirik. Beraz, dagokionari arazoa konpon dezala eskatzen diogu".



• Bi emakume etorri zaizkigu BARRENera **Errosario kalea ez dutela isten-eta** kexatzera: " Kaleko sarrera isteari laga diotenetik, beldurtuta gaude. Umeak kalean autorik ez dagoenean ibiltzen ohituta daude eta arriskutsua da. Gainera, abiadura handian pasatzen dira autoalc", esan digute.

(19

• Bi mutil gaztek **Madalan Eroski berria zabaltzea** posible egin dutenak txalotu nahi dituzte: "Orain, auzoan, urrutira joan gabe egin ditzakegu erosketak eta hori eskertzekoa da".

Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure telefono zenbakia zehaztuz, barren@topagunea.com, helbidera.



# Emakumak baserrin lanetan

eci00000 mociomOOOcNoodeeeweeseeseeseeemeseemommeseeeememc

Rosa Mari Salegi (Mausitxa baserria). 41 urte.

## "E  a unia beti eu'{i cau protagonismo haundixa baserrixan"

Emakumiek baserrixetan betetzen daben papera edo lana asko aldau da, baina baserriko bizimodua eruaten laguntzeko ezinbesteknak gerala beitxantzen jata. Emakumiak falta dian baserrixetan esaterako, igarri eitxen da. Artzainen Elkarteko bileren bitxartez baserrixan lan eitxen daben mutil soltero asko ezautzen ditxut, edadian aurrera dijuazenak gehixenak, eta hoztuta ikusten ditxut, aurrera segitzeko motibaziorik gabe".

Rosa Mari Salegi (41 urte) Mausitxa baserrian bizi da senarra, senarraren ama eta seme-alabekin batera. Baserritik ateratzen dutenaz bizi dira, artzantzatik, hain zuzen ere. Mendaroko Zahatsu Baserrian jaiotakoa izan arren, badaki zer den lantokiko lana, 5 urte egin baitzituen lantegi batean. "Baserriko mutil laguna, ardizalia, topau naban ordia, eta berriz baserrira bueltau nintzan". Zorionez, ardien mundua eta gaztagintzarena asko gustatzen zaizkiola aitortu digu, "batzutan lan gogorra eta lotua da, baina egun onak ere asko pasatzen ditxugu. Gustuko lekuan, aldaparik ez". Asteburuetan ere lan egitera behartuta dauden arren, udan oporrak hartzeko aukera izaten dutela esan digu. "Gure gurasuek ez zaben oporrik ezautu".



ROL BANAKETA

"Gizonak asko laguntzen dia etxeko lanetan. Bixok hartzen dogu parte, b a i baserriko lanetan eta baitxa etxekuetan ere". Lehen baserriko lanak gizon eta emakumeen artean beste modu batera banatzen zirela aipatu digu, hau da, rolen banaketa ematen zela, "lehengo emakume baserritxarrek, josi, etxeko lanak ein, umieri eta gizonari kaso ein, esnia saldu... eta antzerako lanak eitxen zitxuen. Baserrixa gizonan kontua zala eta emakumiek ein ezindako lanak zaudela pentsatzen zaben". Gaur egun, aldiz, emakume baserritar askok gizonezkoen lan bera edo gehiago egiten dutela aipatu digu, eta leku askotan baserriko eta etxeko lanak banatzen dituztela, "gaur egun normala da gizon bat ardixak karruan hartuta eta ume txikixa autoko atzeko aldian duala mataderora juten ikustia. Makinek eta hainbat aurrerapenek lana erraztu izatiak ere euki dau zerikusirik".

Bestalde, Artzai eta Nekazari eskoletan baserrian lan egiteko prestatutako gero eta neska gehiago daudela esan digu Rosa Marik. "Semiak baserrixan geratzeko gogua daka eta nik ere hala nahi neuke. Horretarako neskalagun bat ekartzia lagungarrixa izango jalcola uste dot".

ESPLOTAZIOA

- 620 ardi
- 20 behi (Haragitarako)
- Iaz 58.000 litro esne produzitu zituzten (Esne guztia gaztagintzarako erabiltzen dute)
- 8.000-9.000 kilo gazta egiten dituzte urteko. Idiazabal jatorriko gazta gisa saltzen dute.
- Elgoibarren, Eibarren, Bergaran, Mutrikun, Arrasaten eta Gasteizen saltzen dute gazta.

L

*Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzen da gaur (Martxoak 8). Oraindik lan asko egiteko dagoen arren, aurrerapen handiak lortu dituzte emakumeek gizartean eta baita lan munduan ere. Emakume baserritarrengan jorri dugu gure begirada aste honetako erreportajean. Mausitxa baserriko Rosa Mari Salegi eta Zabaleta baserriko Juanita Azkue baserrian lan eginez bizi dira. Beraien eguneroko lanaren berri emateaz gain, emakume baserritarrek, lehen eta orain, baserri munduan izan duten garrantzia azaldu digute.*

Juanita Azkue (Zabaleta baserria). 53 urte.

# "Kalera bajatzen garenean, ez gara denbora pasa joaten"



uanita Azkue Manterola (53 urte) San Lorentzoko Zabaleta baserrian bizi da senarra eta semearekin batera. Haragitarako 6 behi dituzte, baina gehienbat baratza lantzeaz bizi dira. "Letxugak, porruak, azak, azelgak, piparrak, patata, tomatiak, ilarrak... denetik landatzen degu, garaian garaikoa". Produktu hauek guztiak Elgoibarko merkatu plazan saltzen ditu bere alaba Amaiak. "Bolada onak daudenean, almazenetara ere saltzen ditugu berdurak". Juanita zarauztarra da izatez. Bertako baserri batean jaio zen, eta ezkondu aurretik 2 urtez kalean lanean ibilitakoa da. 21 urterekin ezkondu eta Zabaleta baserrira etorri zen.

**BASERRIKO LANAREN LOTURAK**

Lehengo emakume baserritarraren lana eta oraingoa erabat ezberdinak direla aipatu digu: "Lehen baserriko lan guztiak eskuz egiten ziren. Orain dena makinekin egiten da eta erraztasun asko daude lehen denbora asko behar zuten lanak egiteko. Ona etorri nintzenean esaterako, astoarekin joaten ginen kalera". Hala eta guztiz, lan asko egin behar da oraindik baserrian. "Lehen ere gizonezkoen lan asko egin behar izaten zituzten emakumeek eta gogorra zen. Baserria oso lotua da. Ordu askoko dedikazioa eskatzen du eta ez da denbora libre askorik geratzen. Kalera joaten garenean ez gara denbora pasa joaten, produktuak saltzera, medikuarengana edo beste errekadu batzuk egitera baizik. Hala ere, gustatzen zaigu jai arratsaldean bueltatxo bat eman eta kafetxo bat hartzea, bestela ez da igartzen asteguna edo asteburua den. Lehen ez geneukan horrelako aukerarik eta ez ginen baserritik atera ere egiten". Oporrak hartzea luxu bat da oraindik, "oporrak hartzea gustatu arren, baserrian urte guztian egoten da lana".



**LAN ASKO, JORNAL TXIKIA**

Baserriko lanetatik gehien gustatzen zaiona baratzeko lanak dira, "ganaduarekin ibiltzea baino gehiago gustatzen zait". Baserriaren alderik txarrena, berriz, jornal duina ateratzeko ordu asko sartu beharra dela aipatu digu, "eta ezer ez da segurua, eguraldi txarrak uzta hondatu dezake-eta. Fabrikan, berriz, orduak sartu eta jornala segurua da". Baserritik bizi diren baserritarrak gero eta gutxiago zergatik diren galdetzean traba asko daudela erantzun digu: "Azken aldian poztasun gutxi dituzte baserritarrek. Lan asko egin beharraz aparte, traba asko jartzen dituzte. Baserriko esnearen prezioa adibidez, asko jaitsi da. Horrelako gauzek asko erretzen dute eta baserritar asko nazka-nazka eginda dago. Horrela zaila da aurrera segitzea, egiten dutena gustatu arren".

EGUN NORMAL Ri-kT

Goizeko 8:00ak ineuruan jaikitzt.. da. Gosaidu eta bazkaritarak zerhait prestatzen du. 9:00a inguruan ardiak jaizten hasten dira. Ordu eta erdi behar dituzte 310 ardi jaizten. 4 urte daramatzate makina haten laguntzaz lan hau egiterr haina lehen eskuz egiten zute "Emakuntiok esku finauak ditxug. esnia jaizteko eta aman et koinatan laguntzia bihar izate: genduan". 10:30etik bazkalordur hitartean gaztagintzak behar ditu hainbat prozesutan egiten du la "Esnia hoztu. berotu gero, gatzarix bota, nuildietara atera, prentsat garhitu... Prozesu luzea da eta ord asko joaten dia. Gainera. ordua eta tenperaturiari Lasu ein biha jakue beti. I iazta mimatzen da"' Arratsaidean. hotzgailuan daude gaztei buelta ematen die, Ihmtzean, berriz. ardiak harrura erretiratu e Rosa Mariren senarrak, JCSUSC ematen die jaten. 1:00ak ingurua araltzen dute eta afalostean, herri jaizi behar dira ardiak. 22:30a imuruan joaten dira ohera.

2002-111-8

# Ekainera arte luzatuko dira larunbat gauetako autobus zerbilnak

## Azpeitira joateko zerbitzu berria jarriko dute

Gazteak ibilgailu pribatua erabili gabe inguruko herrietara mugitzeko, Gipuzkoako herri populatuenak elkartzen dituen gaueko autobus zerbitzua jarri zuen martxan Foru Aldundiak iazko urrian. Bost hilabete pasatuta, balorazioa egin dute eta aurreikusten zuten %20ko erabilera gainditu duela ikusi dute. Zerbitzurik erabilienak goizaldeko 3:00etakoa eta 4:00etakoa izan dira. Proba epearen ostean hainbat herrik zerbitzu gehiago eskatu ditu, esaterako Azkoitia-Zarautz eta Elgoibarrerako zerbitzuak.



*Hemendik aurrera bidaiari kopurua igoko dela uste du Foru Aldundiak. Erretratuan, autobus parada.*

**Bidaiari gehlagoren esperoan**

Orain arte larunbatero 12 autobus ibili dira baina datorren martxoaren 9tik aurrera 15 izango dira, zerbitzuak indartzeko hiru ibilgailu gehiago jarriko baitituzte. Horrekin Azkoitia-Azpeitia eta Elgoibar-Eibar arteko zerbitzuak eskaini nahi dituzte, besteak beste.

Proba epea martxoaren 2an amaitu zen, baina gaueko zerbitzuak ekainera arte luzatuko dituztela jakinarazi dute. Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamenduaren esanetan, "proba negu partean egin dela kontuan hartuta, orain bidaiarien kopurua igoko dela eta autobusen okupazioa %35era iritsi daitekeela uste dugu".

**Ordutegia**

Eibartik Mutrikura joateko lehen autobusa 1:10ean pasako da Elgoibartik eta bertatik bueltatzeko azkena 5:30ean izango da. Azpeitira doan lehena 1:40an izango da Elgoibarren eta itzultzeko, azkena, 4:30ean. Dena den, ordutegi zehatza BARRENeko 17. orrialdean aurkituko duzue.

Mutrikuko linean, autobus txartelaren preziorik altuena 1,55 eurokoa da; Azpeitiko linean, berriz, 1,15 euro. Ibilbidearen arabera aldatuko da prezioa.

# Martxoaren 21ean zozketatuko dituzte Urruzunoko etxelikitza sozialak

## 52 eskari onartu dira eta familia tipo bakoitzari etxebizitza zehaztu zaio

Askotan esan dugu Urruzunoko etxebizitza sozialen zozketa hilabete batean edo bestean egingo zutela. Azkenik. "Etxebide"-n jakitera eman digute zozketaren data zehatza: martxoak 21. Eskarien errekurtsoak aztertu eta horietako batzuk baztertu ostean, onartutakoen behin betiko zerrenda eginda dago, baina orain etxeen giltzak zeinen eskuetan geratuko diren jakitea falta da.



*Informazio gehiago nahi duenak, "Etxebide"-ko 012 telefonora dei dezake.*

**Onartutako eskariak**

Guztira, onartutako eskariak 52 izan dira, baina kontuan hartu behar da familia tipo batzurentzat etxebizitza kopuruak zehaztu dituztela. Horren arabera, honela gelditu dira zerrendak: Ezinduentzako 3 etxebizitza zeuden prestatuta, baina eskari bakarra onartu dute. Guraso bakarreko familia batentzat etxe bat dago eta eskari onartua ere bakarra da. 35 urtetik beherakoentzako 20 etxe daude eta 28 eskari, eta gainontzekoentzat, 16 etxe aukeran eta 22 eskari. Beraz, zozketa ostean jakingo da alokairuko etxebizitza sozialak norentzat izango diren. Etxebizitzak eraikitzeko lanak amaituta, altzariak jarri eta bertara joateko moduan egongo dira zortea izan dutenak. Izan ere, sukaldeko altzariak eta komunak jantzita egongo dira jabeei giltzak entregatzerako.

Babes sozialeko etxebizitzen inguruko zalantzarik argitu nahi izanez gero, Etxebidera deitu (Telefonoa: 012)

## Elorri Irusta eta Arritxu Ballieta izan ziren lehenengo elgoibartarrak I. Aurresku eta Soinu Txapelketan

Joan den asteburuan jokatu zen Herriko Antzokian Elgoibarko I. Aurresku eta Soinu Zahar txapelketa. Inazio Bereziartua Musika Eskolak Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarraren babesean antolatutako txapelketa hau larunbatean eta igandean izan zen. 7 eta 11 urte bitarteko 32 neska-mutil aritu ziren lehian. Larunbatean, mutiletan, lehenengoa Lezoko Asier Badiola izan zen. Nesketan ere Lezora joan zen lehen saria, Nahikari Bizueterengana. Maila honetan Elorri Irustari eman zioten Elgoibarko Lehen dantzariaren saria. Igandean 12 eta 15 urte arteko 33 neska-mutilen txanda izan zen. Mutiletan Donostiako Jon Agirretxe izan zen irabazlea eta nesketan, Garazi Lekuona, Lezokoa. Arritxu Zialtzetak jaso zuen Elgoibarko lehenengo dantzariari emandako sari berezia.



*Erretratuan, parte hartutako elgoibartarrak*

## GO euroko 4 sari banatu dituzte Merkatu Plazan

Merkatu Plazako dendariek hilero sariak zozketatu ohi dituzte erosketak egin dituzten bezeroen artean. Otsaileko sariak aste honetan bertan banatu dituzte eta honakoak izan dira sarituak: M.Asun Revuelta, Maite Mendikute, Veronica Bello eta Pakita Ansola. Bakoitzari 60 euroko saria dman diote eta erosketa txeke bidez, Merkatu Plazako dendetan egin ahal izango dituzte erosketak. Honela merkatariek bezero finak saritu nahi izan dituzte. Datorren hilabeteko saridunak, asteburuko egonaldia irabaziko du.



*Ezkerretik eskumara: M. Asun Revuelta, Maite Mendikute, Veronica Bello eta Pakita Ansola.*

## Udalak lan poltsa osatzeko deia egin du

Elgoibarko Udalak Giza Baliabide eta Enpresa Antolamendu arloko lanpostuetarako beharrei erantzuteko, lan poltsa osatu nahi du. Horretarako eskakizun orriak Idazkaritzan daude. Eskariak aurkezteko epea martxoaren 14an amaituko da eta eskariak Erregistro Orokorrean utzi behar dira astelehenetik ostegunera bitartean, goizez, 9:00etatik 14:00etara eta arratsaldez, 16:00etatik 18:00etara. Ostiralean, goizeko ordutegian, eta larunbatean, goizeko 9:00etatik 13:00etara.

ELENA
i'leapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89


Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 u' 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

### Gaur, martxoak 8, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna da

# GIZONEK NOIZBAIT EGINGO AL DITUPTE EMAKUMEEN EG1TEN DITUITEN LANAK?



## MARIA ASUNCIoN JUBETE

**64 urte, etxekoandrea**

Bai. Gaur egungo gazteak gero eta gehiago ikusten dira alfonbrak astintzen, zapatak garbitzen... Nire etxean ere semeak egiten du bere ohea, senarrak, aldiz, ez du sekula egin.

## GOBETTI ANTUNES

**26 urte, etxekoandrea**

Bai, ikusten dut horretarako aukera, heziketa ere aldatu egin baita. Behin hasitakoan, egiten dituzte lanak, baina pentsatzea eta beharra ikustea kostatzen zaie.





## ESTHER ORTUBE

**34 urte, etxekoandrea**

Baiezkoan nago. Gizonezkoen jarrera asko aldatu da garai batetik hona. Hala ere, hori iristerako pasako da denbora, aldaketa prozesua motela da-eta.

## JOSE LEON

**41 urte, metalurgikoa**

Eta emakumeak iritsiko al dira gizonezkoen Ianak egitera? Erabateko berdintasuna ezinezkoa da. Badira gizonezkoenalc diren lanak egiten dituzten emakumeak, baina pertsonen fisonomiarengatik zaila da lan berdinak egitea.





## MARI CARMEN AGUILERA

33 **urte, etxekoandrea**

Bai, nire senarrak behintzat egiten ditu. Etxeko lanak banatu egiten ditugu, eta nire etxean hala bada, beste toki batzutan ere berdin gertatuko dela uste dut.

## ALEJANDRO REY

**54 urte, metalurgikoa**

Bai, epe luzera eta piskanaka aldatuko dira gauzak. Baina nire kasuan, bebin adin honetara ezkero, zaila ikusten dut Ianean hastea. Dena egin izan didate eta gaizki ohituta nago.



JOSE
(Txema)
Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola,
kortxoa, etab. jartzen dugu.
San Bartolonn, 28-1 uk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

DEBA
GARAIA
INMUEBLE AGENTZIA
LOKALA
Pedro Muguruza hiribidea
salgai edo alokairuan
Azalera 115 m2
80 m2-ko entreplanta
EGORERA EZIN HOBEAN
Erakusleiho onak
Errosario, 34-1 ezk • Tel. 943 744 283 • Faxa: 943 744 253

## 25 urki landatu zituzten Zuhaitz Egunean Basarte auzoan



Pasa den ostiralean, martxoaren lean, Zuhaitz Eguna zela-eta, Elgoibarko ikastetxeetako 6. mailako hainbat ikasle bildu eta zuhaitzak landatu zituzten Basarte auzoan. Guztira 25 urki sartu zituzten Udaleko brigadakoen laguntzarekin. Urkiei landatu zituzten ikasleen izenak ipini zizkioten papertxo batean. Horrela, zuhaitza nola hazten den gertutik ikusi ahal izango dute ikasleek.

## Pilarrekoak bisitan izan ziren BARRENen

Pilar Ikastetxeko 4. mailako ikasleak, Agustin Rubio irakaslearekin batera, BARRENen izan genituen bisitan pasa den otsailaren 28an, eguenean. Ikasleek gustura asko entzun zituzten BARRENi buruzko azalpenak: noiztik egiten den astekaria, 10 urteren buruan egon diren aldaketak, erredakzioa osatzen dugun pertsonen ardurak... Adi-adi egon ziren denak. Gero, taldeka egunkari bat aurkeztu behar dute eta lan hori egiteko ideiak eta azalpenak behintzat, jaso zituzten.



# a enda

**Martxoak 9,** zapatua
**V. PILOTA EGUNA**
**Ikastolako Frontoian**
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

**Martxoak 21,** eguena
18:30ean HITZALDIA
**Kultur Etxean**
Gaia: "Haurtzaroko beldurrei aurre egiteko estrategiak"
Hizlaria: Ifiaki Toledo psikologoa.
Antolatzailea: Herri Eskolako Gurasoen Elkartea.

**Martxoak 10,** domekia
**9:30 MENDI 1RTEERA**
**Oiz (Durango)**
Irteera: Ikastolatik
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

# no a ALDATU diren gauzak!



**1942.** urtekoa da erretratu hau. Santa Klara kalea agertzen da. Atzean, konbentua nabaritzen da. Artean, errepiderik ere ez zegoen. Ertzean ikusten den eraikuntza zatia, Salbadore ermita da. Ibaia gaur egun baino ur gehiagorekin azaltzen zaigu. Garai hartan, gainera, arrantzan egiten omen zuten. Ennita ondoko tunel azpira San Migelgo errekako urak ailegatzen dira. Ibai ertzean, errekara jaisteko eskailerak zeuden eta harri handi bat ere bai. Arropak garbitzera joan ohi ziren emakumeak, Meritu galanta zuten, bertara, uda nahiz negu, goizeko freskurak hartuaz, otarrak buruan hartuta, lixiba egitera joaten ziren emakumeek.



**2002.** urtean parajea guztiz ezberdina da. Aurrealdeko etxeak bota ondoren, 1955ean errepidea egin zuten. Elgoibarko sendagile ospetsua izandako D. Ignacio M. Arrillagak inauguratu zuen errepidea. Bera izan zen lehen aldiz autoan bertatik pasatu zena. Santa Klarako konbentua errepideaz bestalde, apur bat gorago, berriro eraiki zuten, 1975ean. Gaur egun etxe dotore askoak daude Santa Klaran, plaza ederrarekin. "Sociedad Ajedrecistica Zubi-Ondo" elkartea ere bertan dago, herrian oso ezaguna dena. Epe laburrera, etxe berriak egiteko proiektua dago, gainera.

Juanito Gorostiza








Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 12 • ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

HARTFORD
ASEGURUAK

euskaltegi
e t cd]
arigera
Elgoibarko HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEARI eskainitako gehigarria

EUSKALDUNDU DIREN ERDALDUNAK

# "HIL ARTE JARRAITUKO DUT EUSKARA IKASTEN"

**JABIER AGIRRE OSORO**

Elgoibarren jaioa eta bertan bizi da 43 urteko gizon hau. Urte eta erdiko seme baten aita den honek, kaminero lanetan dihardu. Orain dela 15 urte hasi zen euskara ikasten eta eguneroko jardunean erabiliz euskaldundu dela esan digu: entzumena landuz, irakurriz, idatziz eta batez ere hitz eginez.



**Zer dela eta hartu zenuen euskara ikasteko erabakia?**
Barnean hutsunea sentitu nuen eta noia edo hala bete behar nuela pentsatuta ekin nion ikasteari. Ikasketak erdara hutsean egin nituen eta euskara galdu nuenez, berreskuratzea nahi nuen. Nire barruak eskatuta hasi nintzen ikasten, ez beste norbaiten aginduz. Euskara ikasteko lehen urratsa k ika stetxeetan ematen dira, baina gero eguneroko harremanetan erabili behar da.

**Hizkuntza bat ikastea amaitzen al da inoiz?**
Ez, ikasteko ez dago mugarik 5 urte eman nituen euskaltegian hizkuntza teknikoki lantzen eta gero egunero erabiliz, piskanaka ikasten ari naiz. Euskararen ikasketak, niretzat, ez dira inoiz amaituko. Hil-arte jarraituko dut euskara ikasten.

**Galtzeko zorian dagoen hizkuntza al da euskara?**

**Ez,** baina adi ibili behar gara. Orain artekoa indarraren poderioz lortu dugu eta hori mantendu beharra dago beste bi estatuen menpekotasunetik ateratzeko. Errua besteei leporatzen diegun arren, azken finean, gure eskutan dago euskara mantentzea.

**Norekin hitz egiten duzu euskaraz?**
Ahal dudan guztiekin. Orain lanean ia denak dira euskaldunak eta asko azpeitiarrak eta azkoitiarrak. Kctleko ikastctroa egiten ari naizela esan daiteke.

**Zer da euskararen alde egin daitekeen onena?**
Berarengan sinestea, herriaren sustraia baita.

**Elgoibarren asko hitz egiten al da euskaraz?**
Zoritxarrez gutxi. Bertakoei gogorarazi behar zaie nongoak garen eta nora goazen.

## MAISU MAISTREN luma



**EUSKALDUNON OHITURA DELA-ETA**
Gure herrian ez dago dudarik asko garela euskararen alde gaudenok, baina eguneroko harremanetan zorioneko **ohitura** dela-eta, barra-barra gaztelera da nagusi eta, honen ondorioak gehien pairatzen dituztenak euskara ikasi nahian dablitzan ikasleak dira.
Zoritxarrez, ohitura hau ez da berez sortutakoa eta denok dakigu zein zaila den aldatzea, baina inola ere ez, ezinezkoa. Aspaldian hamaika **ohitura** baztertu eta berriak geureganatu ditugu eta ez beti, onerako.
Hala ere, une honetan Elgoibarren euskara eskuratu nahi duten ikasleei zein edozein herritarrei laguntzeko sortu berri den "Berba Laguna" dugu. Tertulia hauek, euskara ikasten dihardutenentzat sortuak baldin badira ere, aukera paregabea da euskararen alde egonik, eguneroko harremanetan erabiltzen den ohiturazko hizkuntzaren **ohitura** ere, aldatzeko eta bide batez, euskaldun izan nahi dutenei erabilera esparrua zabaltzeko.
Elgoibarren euskararen egoera alda daitekeela ez dago dudarik, erdararen ordez euskaraz berba egiteko **ohitura** aldatu nahi duten euskaldunak animatzea baino ez da falta.

**IZASKUN BELATEGI**
**AEK-Ko** ZUZENDAR1A

# ge oz





## AGURTZANE LARTAIN

Elgoibarren, beharrezkoa al da euskara jakitea? Ez da beharrezkoa, baina komeni da jakitea.

Horregatik erabaki al zenuen ikastea? Ez, lehendik ere banekien.

Zure ingurukoek, zer esan zizuten hasi zinenean? Oso ondo egin nuela.

Zertarako balio izan dizu euskaltegira etortzeak? Euskara sakontzeko. Ondo ikasteko, gehienbat.

Egiten al duzu euskaraz )euskaltegitik kanpo? Bai, lanean batik bat, bezeroekin. llobekin ere bai.

Zergatik? Nire kabuz atera zen. Gogoarekin hartzen diren gauzak zailtasun gutxiago izaten dute.

UNESCOk dioenez, euskara desagertzeko arriskuan dago. Egia dela iruditzen al zaizu? Ez dakit baina, horrela bada, izugarrizko pena hartuko nuke.

Nori ikasaraziko zenioke? Iturgaitzi. Badaki, baina euskara hobetu beharrean dagoelako.

Eta euskara dakitenei, esango al zenieke zerbait? Ez etsitzeko eta euskaraz gehiago hitz egiteko.

Noiz arte jarraitzeko asmoa daukazu? Ez dakit. Momentuz oso gustora etortzen naiz.



(Erretratuan, ezkerretik eskumara): Jose Ramon Or Urriza, Josean GOmez, Iñaki Raigoso, Jose Luis Az lea), Rikardo Lamadrid (falta da), Leire Marfin, Ene Lourdes Iglesias eta Agurtzane Lartain.

**UNESCOk dioenez, munduon douden 6000 hizkuntzetot**
**ZUK ERE DESRGERTZEKO RRRISKURN IKUSTEII**



Rikardo Lamadrid
"Ez dut uste desagertuko denik. Nahiz eta euskaldun sentitzen diren gutxi egon, daudenak oso euskaltzaleak baitira".

## AURREKO LEHIAKETAKO ERANTZUNAK

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 7 | | | | | |
| 1 | G | E | I | N | K | E | | | |
| | 2 | I | T | U | R | E | N | | |
| | | 3 | S | A | N | B | L | A | S |
| | | 4 | I | R | A | T | I | | |
| | | | 5 | B | A | R | R | E | N |
| | | | 6 | E | G | A | Ñ | A | |

EZKERRETIK ESKUMARA
1. Nola esaten da elgoibartarrez: Zer egin dezakegu? Zer egin ....
2. Nongoak dira zanpantzarrak?
3. Otsailaren 3a, zer egun da?
4. Europako basorik handienetakoa da eta Nafarroan dago.
5. Elgoibarko astekariaren izena.
6. Zein da 2001eko bertsolari txapelduna?

GOITIK BEHERA
7. Gipuzkoako herri txiki hau sokatirarengatik da ezaguna.



# IRABAZLEA
**JAVI LEOZ da.**

**Saria:** Bi pertsonarentzat afaria Tofetxe tabernan



loste, Ruben
illaga {irakas-
da Etxaniz,

## GELRKO FITXR

Euskaltegia;
Udal Euskaltefiia
*iroicaslecr.*
lose Luis Azpillago
**Urratsa:**
EGA ateratzen ari dira
**kasle kopurua:**
9 lagun

**Batazbesteko adiria:**
30 urte
**Asteko klase orduak:**
10 ordu
**Bitxikeriak:**
Wizkaitar bat eta legaz anaplar bat daude klasen. L
El goibarren egite dutenez, be rtan hasi dira euskaltegian ere

**NOR da gelako isilena?**

**NORI oparituko zenioke erloju bat (puntuala izateko)? . r;**

**NORK egiten du oso erraz euskaraz?** Agurtzanek.

**NOREKIN joango zinateke Euskal Herriko bazterrak ezagutzera?**

**NON proktikatzen duzue klasean ikasitakoa?**
Etxeon, lagunekin, AR1GERAko ter lidietan. .

**NORENTZAT izaten dira irakaslearen bronkak?**

**NOREN ondoan eseriko zinateke dudak argitzeko?**
jose Luisen ondoan.

**NORENGATIK ari zarete euskara ikasten?** Geuregatik eta badaude prerniagatik ikasten ari direnak ere.

**NORA joango zinatekete elkarrekin hamabost egun pasatzera?** Dominikul Errepubli- Miarnira. Hawaira...

iritzi

**k, 3000 desagertzeko arriskuan daude, euskara tartean.**

**AL DUZU EUSKARA?**



Eneida Etxaniz
"Ez. Hemen oso burugogorrak gara eta nire ustez, ez da desagertuko. Gainera, gero eta puza gehiago egiten diro euskara-bultzatzeko.

## HiKUS1 ETA IKASI" LEHIAKETA

Lehloketon parte hartu nahi baduzu, gurutzegrama ando egitea besterik ez daukozu. Horrela egin ostean,. moztu papera marra etenetik eta bidali honako helbidera apirnarenla boino lehen. Bi pertsonarenizat afarla irabaz dezakezu, Toletxe tabernan. Bidali erantzunak helbide honettra: Arigera praiektua. Ubitarte 4, behea 20870 Elgoibar, arigera@infonegocio.com. Euskara ikasleok euskaltegietan ere entrega dezakezuo.




EZKERRETIK ESKUMARA
I. Donostiako parke teknologikoa.
2. Nola esaten zaie orlatiarrei?
3. Nongoa zen Fernodo Aire "Xalbador" bertsotari ezaguna?
4. Zein izen du Bermeo eta Elantxobe artean dagoen uharteak?
5. Gipuzkoako mendia, Hondarribian.
6. Getariaka ederia.
7. Nork egin zuen *Aize Orrazia* eskultura?
8. Montxo Armendarizen film bat. Nafarroan errodatua.

GOITIK BEHERA
9. Bilboko Aste Nagusiko pertsonaia.

Parte bartzen duzuenon arteon zozketatuko dugul 2 LAGUNENTZAKO AFAR1A

# euskaltegietan barrena




### HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Herri batek bere hizkuntza erabiltzeko duen eskubidea guztiz oinarrizkoa denez, Euskal Herrian euskaldunon euskaraz aritzeko eskubidea ere guztiz oinarrizkoa da. Eskubide hau egunero urratzen delako sortu zuen Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak.

**Zer da Hizkuntz Eskubideen Behatokia?**
Euskal Herriko herritarren hizkuntz esku bideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, bermatzera zuzentzen du bere jarduera.

**Zer egiten du Behatokiak?**
Hizkuntz eskubideen inguruko:
- Kexcik jaso eta bideratu.
- Argibideak edo aholkuak eman.
  Jokabide eredugarriak txalotu.

**Nola kexatu, argibideak jaso edo txalotu?**
Beraz, euskara erabiltzeko eskubidea errespetatu ez badizue, hizkuntza eskubideen inguruko zalantzaren bat argitu nahi izanez gero edo erakunderen bat txalotzeko, bi aukera daude:
- **902 194 332 telefonora deitu edo;**
  www.behatokio.org

## ■ NOT1ZIAK

### "KOREA, TXINA, AMETS BATEN BIDEA" 1KUSENTZUNEZKOA ESKAINIKO DUTE MARTXOAREN 14AN KULTUR ETXEAN



Udal Euskaltegiak, Kutxa Fundazioaren babesarekin, "Korea, Txina, amets baten bidea" ikusentzunezkoa eskainiko du datorren martxoaren 14an, eguenean, arratsaldeko 15:30ean, Kultur Etxectn. Angel Cuerdo da 50 minutuko traupena izango duen emanaldi honen egilea. Ondoren, elkarrizketa egongo da. Emanoldia euskaraz eta erdaraz egingo da. Nahi duen edonor joan daiteke.

### AEK-K0 ZOZKETAREN ' ZENBAKI SARITUA AZALDU DA

Otsailaren 22an, ONCEk egindako zozketan 03.652 zenbakia izan zen saritua. Zenbaki bero do, AEKren laguntzaileak ateratako errifarena. Aurtengo diru-saria Arrasateko **AEK**-ko kide bati tokatu zaio. Zorionak irabozleari, eta mila esker, saltzen eta erosten parte hartu duzuen Elgoibarko laguntzaile guztioi. Ea hurrengo saria herrira etortzen den!




# arigera ren TXOKOA

**BERBA LAGUNA** egitasmoaren barruan, otsailaren 23an, larunbatean, mendi irteera egin zuten Xoxotera eta eguraldiak asko lagundu ez bazien ere, irteera egin zutenen esanetan, goiz ederra pasa zuten.



Bestalde, apirilaren 19rako, barixakurako, sagardotegtra irteera antoiatu du Arigerak. Autobusak eta bertako menuak 21 euro balio ditu. Izena emateko Elgoibarko Izarrara jo dezakezue edo euskaltegian bertan eman apirilaren 11 baino lehen.

Beheko urratsak motibatzeko Arigerak beheko urratsetako ikasleak motibatuta mantendu nahi ditu. Horretarako honako ikastaroak edo ekitaldiak antolatu ditu. Batetik, sukaldaritza tailerra edo ikastaroa, apirilaren 11 n; eta bestetik, euskara ikasle ohiak gelaz gela pasatuko dira euren esperientziak kontatzera.

# Farmazia okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 8 Ibañez | Ibañez |
| 9 Bidasolo | Bidasolo |
| Bidasolo | Bidasolo |
| 11 Etxeberria | Etxeberria |
| (Errosorio kalean} | |
| 12 Fernandez | Fernanciaz |
| 13 Yudego | Yudego |

**FARMAZIAK**

IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
TeL 943 75 61 42
**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84
*eguerdiko 2ak arte

OKINDEG1A
10 igandea Ibarrenea

EuskoTren TRpak EuskoTren A1 TOBUSAK

**DONOST'IA-BILEO**
**Egunero**
Doriostia re,te.a 5.45 06.45... 20.45
Elgoibar 07.02 08.02.. 22.02
*iategunetan 7A5ean hasiku dira eta orduero egongo dira

**BILBO-DONOSITA**
**Egunero**
**Bilbo** 06,00 7.00... 20.00
Elgoibar 07.23 08.23... 21.23
* jaiegunetan N 00etan hasiko dira eta cyrduero egongo dira

**MENDARO-ELGOIBAR**
**Egunero**
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

**ELGOIBAR-MENDARO**
**Astegunetan**
**Elgoibar** 07.25 08.25 10.25... 21.25

**jaiegunetan**
**Elgoibar** 08.25 09,25 10.25... 21.25

**PES,AUTOBUSAK**

**LARUNBAT GAUA**

**EEBAR-ONDARROA**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| 3.1utriku | 00.55 | 02.55 | 04.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

**ON'DARROA-EIBAR**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ondarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03. 40 | 05.40 |
| Deba | 23 45 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

**EIBAR-MUTRIKU**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Eibar** | **01.00** | 02.30 | 04.30 | 06.00 |
| Elgoibar | 01.10 | 02.40 | 04.40 | 06.10 |
| Deba | 01.20 | 02.50 | 04.50 | 06.20 |
| Mutriku | 01.25 | 02.55 | 04.55 | 06.25 |

**MUTRIKU-EIBAR**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Mutriku | 00.00 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Deba | 00.05 | 01.35 | 03.35 | 05.35 |
| Elgoibar | 00.15 | 01.45 | 03.45 | 05.45 |
| Eibar | 00.25 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |

**EIBAR-AZPEITIA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Eibar | 01.30 | 03 30 | 05.30 |
| **Elgoibar** | 0440 | 03.40 | 05.40 |
| Azkoitia | 01 50 | 03.50 | 05.50 |
| Azpeitia | 01.55 | 03.55 | 05.55 |

**AZPEITIA-EIBAR**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Azpeitia | 00.30 | 02.30 | 04.30 |
| Azkoitia | 00.35 | 02.35 | 04.35 |
| Elgoibar | 00.45 | 02.45 | 04.45 |
| Eibar | 00.55 | 02.55 | 04.55 |

*Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko inforrnazio bulegora. TeL 902 101 210.*

# INTERESEKO TELEFONOAK

## OSASUNA

Larrialdiak ........................................112
Anbulatorioa .................... 943 03 26 10
Plan rung-a ........................ 943 74 29 50
Alkonekke Anenenoak ............ 943 74 03 85
D.Y.A (anbulantzia) ............ 943 46 46 22
Gurutze Gorria .................. 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea .............. 943 03 28 00
Odol Emarleak .................. 943 74 39 36

## GARRAIOAK

Eusko Trenbldeak 902 54 32 10
PESA (Eibar) .................... 902 10 12 10
Taxi geltokia .................... 943 74 ()8 98

## IJDALA

Udaletxea ........................ 943 74 10 50
Euskara Zerbitzua ................ 943 74 43 66
Ongizate zerbitzua .............. 943 74 10 08
Kultura Zerbitzua ................ 943 74 21 58
GIG 1Gazte Informam Gunea) ............ 943 74 14 61
Udaltzaingoa .................... 943 74 13 94
Udal Kirol Patronatua ............ 943 74 44 15
Mendaroko Udala .................. 943 75 61 00

## BESTELAKOAK

Eigoibarko Izarra ................ 943 74 16 26
Kiroldogia ........................ 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa ................ 943 74 30 88
Liburutegia ...................... 943 74 35 25
Musika Eskola .................... 943 74 21 45
Mintxeta .......................... 943 74 43 15
Parrokia .......................... 943 74 08 42
Postetxea ........................ 943 74 15 47
Gaztetxea ........................ 943 74 35 72

## ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza ................ 943 74 02 96
Zaharren Biltokia ................ 943 74 05 26
Eguneko Zentroa .................. 943 74 45 65

## IKASTETXEAK

Haur Eskola ...................... 943 74 21 41
HHI (EPA) ........................ 943 74 08 80
Herri Eskola ...................... 943 74 08 79
I.M.H ............................ 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre ........................ 943 74 80 19
Ezenarro (Meka) .................. 943 74 80 19
I kastola .......................... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea ............. ..... 943 74 13 31

## KOIVIUNIKABIDEAK

BARREN ............................ 943 74 41 12
El...........Vasco .................. 943 74 40 73
El Correo Español ................ 943 74 10 82
Zazpiki irratia .................... 943 74 34 74
Egunkaria .......................... 943 30 o2 22
Gara .............................. 943 31 69 99

# erretratu zaharra





Aste honetako erretratua benetan zaharra da, 1953koa hain zuzen ere, eta Maria Zelaiak laga digu. Martxoaren I9an, San Jose Egunean, ateratako argazkia da, San Migelgo Bentan. Lagun koadrila honek urte sasoi honetan bildots jana egiteko ohitura omen zuen eta bazkal ostean, sabela bete-bete egin eta gero, erretratua ateratzeko tartea ere hartu zuten.

Atzekoa Sagarraga baserria da eta Arno mendi sarea ere ikusten da. Gaur egun paraje hau desberdina dago zeharo, dena pinuz beteta baitago. Hauek dira erretratuan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Jose M. Arrizabalaga "Ziarda" (t), Jose Loiola "Kurutze" (t), Pedro Egaña "Biohl" (t) , Domingo Arregi "Sahatzu" (t), Jose Loiola "Sagarraga" (t), Juan Ondarra "Zelaieta" (t), Juan Loiola "Urakaregi Txiki" (t) eta makurtuta, Jose Arrillaga "Muxilio" (t).



*I. URTEURRENA*
*2001eko martxoaren 9an, 44 urte zituela hil zen*
*ITZIAR ASTIGARRAGA ASTIGARRAGAren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 9, arratsaldeko 19:00etan.*
*Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



*Martxoaren 8a, Emakume Langilearen Eguna dela-efa, Haizea Emakume Taldeak arte erakusketa antolatu du. Atzo inaugurazio ekitaldi berezia egin zuten eta martxoaren 17ra arte ikusgai izango dira lanak. Aste honetan Kultur Etxeko erakusketa gelan prestaketa lanetan aurkitu ditugu Ainara Garcia eta Ainara Etxeberria. Bi artista gazte hauek, hurrenez hurren, moda eta barruko egituraketen diseinuan ari dira. Alazne Gonzalez diseinatzai(e grafikoa eta lasone Osoro kazetari eta idozleak ere parte hartu dute. Erakusketaren nondik norakoak azaldu dizkigute.*

# "Elgoibarko emakumiak arlo ezbercinetan mobitxu gera. Orain, kulturak 3atuko gaitxu"

- **Nork antolatu du erakusketa?**

**Etxeberria:** lcleia Haizea taldeko emakumeen aldetik sortu zan. Beraiek urtero artisau lanekin erakusketa antolatzen dabe eta aurten jende gaztia mobitzeko gauza berriren bat eitxia nahi zaben, arte kontenporaneuakin zerikusixa zaken obrak. Euren inbitazivan ondoren bixok hasi gera lanian.

■ **Zein helbururekin prestatu duzue?**

**Garcia:** Beraiek emakume taldia dian aldetik, emakumien aktibidadiak fomentatzia nahi dabe.

**Etxeberria:** Gure aldetik ere, mobitzeko zeozer badao, ba mobitzia da gure helburua: arte mailan erakusketa prestatzen, obra bat lagatzen...

**Garcia:Oin** arte gure lanak eruan ditxugun artistak izan gera, eta bageneukan gogua hori prestatziak eta koordinatziak eman ditzakeen zailtasunak eta aberastasuna ezagutzeko.

- **Zer aurkituko du erakusketara doan jendeak?**

**Etxeberria:** Sorpresa bat. Obrek pertsonarik gabe ez daukate zentzuriki eta berez guk erakusketa inagurazio aktorako preparau dogun arren, gerora ere erakusketak zeresana ematia nahi dogu.

**Garcia:** Ez dogu obrak besterik gabe ipintzia nahi. Beraien arteko kokapena eta montajia kontuan hartuko ditxugu. Ainara Etxeberriak interiorismua zainduko dau. "Puesta en escena" dalakuari ere garrantzia emango diogu. Modeluak ere ekarriko ditxugu nik diseinautako erropak erakusteko.

**Etxeberria:** Danakin arte obra bakar bat sortzia nahi izan dogu, dana lan bat bakarrik izango balitz bezala.

> "Erakusk etako obra danekin art e lan bakarra sortila na hi izan dogu"

- **Obrek zer islatzen dute?**

**Garcia:** Artiari buruz hitz egiten dogunian garrantzia ez dake paretetan dauden obrek bakarrik. Kultura generalian fomentatzia nahi dogu. lnagurazio ekitaldixan, adibidez, moda, diseinua, estilismoa, gastronomia, kulturako arlo ezberdinek ein dabe bat. Beraz, kultura izango da erakusketaren ardatza. Elgoibarko emakumiak arlo ezberdinetan mobitxu gera eta kulturak erakusketa honetan batu gaitxu.

**Etxeberria:** Antolaketan ibili geran lau artistok ere, arteko arlo desberdinetatik gatoz: Jasone Osoro idazlia da, Ainara Garcia moda diseinadoria, Alazne Gonzalez diseinadore grafikua eta ni barruko egituraketen diseinuan ari naiz. Bakoitzak bere kreatibitatia aportau dau.

- **Emakumeok sentsibilitate berezia al du arterako?**

**Garcia:** Pertsona dan aldetik, noski baietz. Baina ez **da** emakume eta gizonen arteko konparaziorik ein bihar. Gainera, ez dogu erakusketa honen inguruan "getto"-rik sortzerik nahi.

**Etxeberria:** Emakumiok eindako lana da, eta hori ikusiko da erakusketan. Baina ez dakagu demostrau biharrik arterako sensibilidade gehixao dakagun edo ez.

111 Zein arrazoi eman nahi diezue elgoibartarrei hona gerturatzeko?

Etxeberria: Momentu bat pasatzera etortzeko espaziva dala.

Garcia: Inagurazio egunerako, atzorako, ekitaldi berezixa prestau genduan, eta gero datozenentzat egun horretatik aurrera pruebak lagako ditxugu: Polaroid bidezko argazkixak, pintxuen sobrak (geratzen badia), gero obrak dauden lekuan eongo dia

## ANA MAIZTEGI KORRIKALAR1A

# "Lilatimiaren 13 ediziuetan hartu dot parte"



r Indarrak berreskuratzeko fruta bat? Platanoa.

-Lilathoiaren edizio guitietan hartu duzu parte, ezta?
Bai, oin arte ein dian 13 edizio edo lasterketetan hartu dot parte.
-Zer dattka berezia 13 urtez jarraian parte hartu izateko? Giro edo anbiente oso politxa. Edade guztixetako andrek hartzen dabe parte eta konplejorik gabe juten da jendia, parte hartzia inportantiena da-eta.
-Nolatan animatu zinen parte hartzera'? Nere koinatak Donostiako kalietan kartel bat ikusi zaban. Emakumiek bakarrik parte hartzen zaben lasterketa bati buruzko kartela zan, Lilathoiana. Koinatak neri komentau zian eta bixok animau ginan parte hartzera. Nere anaixa, Santiago, lasterketetan ibiltzen zan lehen eta berak entrenau gintxuan piska bat.
-Aurrez ibiltzen al zinen korrika? Ez, sekula ere ez. Ez dakat entrenatzeko astirikan eta 5 kilometrotik gorako lasterketak eitxeko entrenatzia biharrezkua dala uste dot. Lilathoiak 5 kilometro ditxu eta neurri egokixa da asko entrenau gabe ein ahal izateko. Ibilbidia, gainera, oso politxa da Donostiako kalietatik eta hondartza ertzetikan pasatzen gera-eta.
-Parte hartzaile kopurua gehituz edo gutxituz joan da? Urtez urte jende gehixo animatzen dala uste dot. Aurten 450 inguru izan gera.
-Urtez urte zure marka hobetuz joan al zara? Entrenamiento kopuruan arabera izaten da. Urte batzutan abendu inguruan hasten naiz entrenatzen eta hobetotxuao ibiltzen naiz. Aurten ez dot asti askorik euki eta otsailan hasieran hasi nintzan entrenatzen. Lasterketa honetan denboriak ez daka inportantzia handirik, baina beti egoten dia piketxuak, eta bakoitza ahal daban onduen eitxen saiatzen da.
-Zer esango zenioke emakumeei Lilathoian parte hartzera animatzeko? Konplejorik ez eukitzeko eta giro oso jatorra topauko dabela. Anekdota moduan, bi emakume oso lodi ikusi genduzen edizio bateko irteeran. Gure artian komentau genduan zer eitxeko gai izango zian. Azkenian, lasterketa bukatziar zauala pasau nitxuan justu-justu eta asko kostata. Askotan gertatzen dan moduan itxuriak engainau eitxen dau. Bestalde, kirol munduan sartzeko prueba oso aproposa da. Gorputzari paliza haundixai ez emateko pixka bat entrenauta edozein jun leikela uste dot. 45 minutu ematen dabe pruebia amaitzeko.
-Zenhat urtez jarraitzeko asmoa duzu? Ahal doten bitxartian jarraitxuko dot. Donostiakua zita fijua da neretzat, berezixa.

## E_,skc)1-a Kirola

UL 7 N'FX.E,TAN
Benjaminak
9:00 Ikastola C - Ikastola A
9:45 Pilar C - Herri Eskola B
10:30 Ikastola B - Mendaro A
11:15 Piktr 13 - Pilar D
12:00 Ikastola D - Hen'i Eskola A

F.S.K.L;BALUIA STO
**Alebin mutilak**
**9:110** I-Ierri Eskola A - Ikastokt C
**9:45** Pilar A- Ikastola A
**12:011** Pilar B - Ikastola 13
**12:45** Ikastola 1) - Herri Eskula 13
**Alebin neskak**
**10:39** Ikastola B- Pilar A
11:15 Pilar B - Ikastola A

SASKIBAL01.1.1[1]11.AR
1KASTETXEAN__
**Infantil**
**10:311** Ikastola C - Pilar A
11:15 Ikastola 13 - Insti A
**12:00** **A - 1nsti B**
**Infantil neskak**
**9:00** **A-** ikastola 1-1
9:45 Pilar A- Pilar B

# 15 emakume elgoibartarrek egin zuten korrika 13. Lilr' rri

## Donostian egiten den 5 km-ko lasterketa da



Emakurneen Nazioarteko Eguna (martxoak 8) ospatzeko sortu zen Lilathoia duela 13 urte. Donostiako kaleetan zehar egiten den 5 kilometroko lasterketa herrikoia da, eta emakumeek bakarrik har dezakete parte. Aurten 400 emakume baino gehiago bildu ziren udaletxe parean zegoen irteera marran. Kirola, jaia eta erreibindikazioa uztartzen dituen lasterketan, 15 emakume elgoibartarrek hartu zuten parte. Elgoibarko Taldea izenarekin hartu zuten parte elgoibartarrek eta baita sari bat jaso ere. Antolakuntzak talde gisa parte hartu zuten 7 taldeei saria ematea erabaki zuen.

# Gonzalez analak Euskadiko Lutxa Idire Ixapeldun

## Xabierrek, junior mailan eta Aitorrek, 15urtez azpiko kategorian, irabazi zuten urrea



surbilgo Kiroldegian jokatu zen Euskadiko Lutxa Libre Txapelketa 1.1 pasa den martxoaren 3an. Ibai Klubeko 5 borrokalarik hartu zuten parte txapelketan eta emaitzak ezin hobeak izan ziren, guztiek lortu baitzuten podiumera igotzea. Xabi Gonzalez eta Josu Idiakez junior mailan lehiatu ziren. Xabierrek urrea leporatu zuen eta Josuk brontzezko domina. 15 urtez azpiko mailan, berriz, Aitor Gonzalezek, Xabierren anaiak, eskuratu zuen urrea. Unai Fernandez eta Jon Ander Faseuatek zilarrezko domina bana lortu zuten. Emaitza hauei esker 5 elgoibartarrek Euskadiko Selekzioa ordezkatuko dute Bartzelonan jokatuko den Espainiako Lutxa Libre

# EMAITZAK

### Futbola

**Berio 1 - Haundi 1 (Pref.)**
Elgoibar "B" 1- Aurrera Ondarroa 1 (1. erreg.)
**Elgoibar 1- Soraluze 1 (Jub.)**
Elgoibar 6 Aloña-Mendi 1 (Inf.)
Elgoibar 2 - Almen 3 (Kad.)

### Eskubaloia

1MS Elg. 22 Elorrio 16 (Senior nesk.)
Pagoaga Elg. 22 - Basauri 16 (Kad. nesk.)
Uncela Elg. 20 - Basauri 16 (Jub. nesk.)
Urduliz 44 • Tecnomeca Eig. 40 (Kad. mut.)
Urduliz 20 Pneumax Elg. 24 (Jub. mul.)
Zarauz 29 - Tecnifuelle Elg. 23 (Senior mul.)

### Saskibaloia

STL Gaztelu 63 - Elgoibar S.T. 74

### Esku pilota

DEBARROKO TXAPELKETA
Atxotegj/Hernandez 5 (Oskarbi) - Goenagallriondo 22
Azagirre/Alberdi 22 (Oskarbi) - Agirrebefia/Loiola
Aranzeta/Arrieta 22 (Oskarbi) - Ansola/Balzola 1

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Lagunak (2) 18 - Urnietal5 (Ing
Lagunak (1) 11 - Ramunteo 18 (Ing

## Idarraga kafeak V. Saria
## HAUNDIko jokalari erregularrena

| Jokalaria | Puntuak | Jokalaria | Puntuak |
|---|---|---|---|
| 1-Salaberria | 98 | 11-Goikoetxea | 13 |
| 2-Joseba Lgartua | 90 | 12-Caro | 10 |
| 3-Loren | 59 | 13-Azpiroz | 7 |
| 4-Navartete | 54 | 14-Bravo | 6 |
| 5-Leonardo | 50 | 15-Jabi | 5 |
| 6-Elkoro | 45 | 16-Jagoba | 3 |
| 7-Ugalde | 44 | 17-Aristondo | 2 |
| 8-Txasio | 39 | 18-Zubiaurre | 2 |
| 9-Gurrutxaga | 27 | 19-Mulika | 2 |
| 10-Guinea | 23 | 20-Toni | 2 |

# AGENDA

### Futbota, Mintxetan

**Zapatua, 9**
16:30 Haundi - Trintxerpe (Pref.)
18:15 Pedrusko Ilintxa (1. erreg.)
**Domekia, 10**
12:00 Elgoibar - Behobia (Inf.)

### ESKUBALOIA, Kiroldegian

**Zapatua, 9**
15:45 Tecnomeca Elg. - Bidasoa (Kad. mut.)
17:15 Pneumax Elg. - Bidasoa (Jub. mut.)
19:00 IMS Elg. Urnietako (Senior nesk.)

### ARETO FUTBOLA, kiroldegian

**Domekia, 10**
12:30 Meka Insti - Alonamendi (Jub.)

# merkatu txikia

2()02-III-8

**OHARRA:**

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

## 114 Langai

Euskal Lan Zerbitzua

• Debabarreneko enpresa baterako **Cam makinen programatzailea behar da. Erref: 71146/2.**

• **Debabarreneko** enpresa baterako **tailerreko arduraduna behar da. Erref: 72102/2.**

♦ Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Eibarko lanpostu baterako **elektrikaria behar du. Erref: 72794/3.**

♦ Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Debabarreneko lanpostu baterako **esportazioetako administraria behar du. Erref: 73025/2.**

• **Aldi baterako lan kontratazio** enpresa batek Debabarreneko lanpostu baterako **lehen mailako ofizialak diren harakinak** behar **Erref: 72562/1.**

• **Mallabiako enpresa baterako kontenedoreen kamioirako gidaria** behar **do. Erref: 71616/3.**

• Durangaldeko enpresa baterako **izotzgailuen panelen muntatnifea** behar da. **Erref: 71661/6.**

***Durangaideko enpresa baterako hizkuntzen akademiarako zuzendari teknikoa behar da. Erref: 71004/6.**

• Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Urola Kostako lanpostu baterako **ingeniari elektrikaria behar du. Erref: 70633/4.**

• Durangaldeko lanpostu baterako **enkofratzailea** behar da. **Erref: 70655/4.**

• Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Abadifioko lanpostu baterako **mantenimendu elektrikorako** behar du. Erref: 72390/5.

• Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Durangaldeko lanpostu baterako gaidaragintzako **ezagupenak dituen** soldatzailea behar **du. Erref: 72583/1.**

• Durangoko enpresa baterako **plantako** arduraduna behar da. **Erref**: 72863/1.

*Durangoldeko enpresa baterako **sukaidaria** behar da. **Erref: 72897/3.**

• Durangaldeko enpresa batek **kamarera** behar du. **Erref: 72903/3.**

***Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Abadiiioko lanpostu** baterako **mantenimendu elektrikoko arduraduna** behar du. **Erref: 73632/1.**

Hautagai moduan sartzea eskaiu nahi baduzu **901222901** telefonorn deitu edo 'Langar-k Elgoibarren dikien zentru loguntzaihs hauetoko batera deihz Elgoibarko Insftutua (Peie inaristij **943 74 80 19** edo 1MH (Nora Raman) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

**ESKAERA**

• 36 urteko emakumea eskaintzen da lokalak garbitzeko edo adineko pertsonak zaintzeko. Esperientziaduna. Carmen. **tr 943 74 27 79** (goizeon).

• Emakumeak bere burua eskaintzen du orduka, egunero izan gabe, garbiketa lanak egiteko. **ir 943 74 22 01.**

**040 urteko emakume ardura-**tsua eskaintzen da adineko **per-**tsonak zaintzeko. **678 38 35 61.** Carmen

***Mutil** bat eskaintzen da kamarero lanetarako. **tr 943 74 37 94.**

**ESKA1NTZA**

• Furgonetadun neska edo mutila behar da banaketa lonetarako. B1 gidabaimenarekin. **tr 629 27 10 53.**

• Emakumea behar da bi perhona nagusi zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. **tr 617 04 72 29** (egunez). ***tr*** **943 74 07 92 (gauez).**

• **Esperientziadun ileapaintzai-**lea behar da asteburuetan **lan** egiteko. Kristina (lanordueran deliu).te **943 74 43 88.**

• Komareroak behar dira Toletxe **tabemarako.er 943 74 19 48.**

***Neska edo** mutil euskalduna behar dugu harrera zerbitzuetan egiteko. **32 Posta** Kutxatila .

## Etxebizitzak

• "Buhardilla" salgai Errosario kalean. Bikote edo pertsonn batentzako aproposa. Prezio onean. (18:00etatik aurreraHr **653 71 75 81.**

• Pisua erosiko nuke Sigman. 13 **606 15 80 22.**

• Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Premiazkoa da. tt **943 74 32 17. Susana.**

***Bigarren** eskuko etxeo solgai Mendaron. 3 logela, bainua eta jangelalogela diru, balkoi ederra eta ganborarekin, Mailo. **zr 943 03 35** 19/ 669 95 60 65.

## Lokalak

♦ **Lokalo alokatzen dut San** Roke kalean. Estudio, bulego edo trasterorako erabil daiteke.sr **655 73 89 56.** (21:00etatik 22:30era bitartean deitu).

## Salerosketak

• Opel Ascona autoa salgai. SS-X. Prezio oso interesgarric. **zr 686 22 44 38.**

• Ezkontzeko soinekoa salgai. Merke. (20:00etatik aurrera). **zr 9/13 74 33 88/ 943 68 33 70.**

• Ford Focus 1600 salgai. 100 zaidi. Zilar kolorea. 2 urte ditu. 20.000 km. Erabiltzen ez cludaluko daukat salgai. **тt 637 53 28 24. Amaia.**

• **Logela** solgai. Oso **merke. is 600 235 509.**

♦ HP 3200 C eskanerra salgoi. Egoera oso onean. Horrez gain, Lexmark Z 32 inprimagailua ere salduko nuke. (21:00 etatik aurrera). zr **600 79 14 40.**

♦ Gilera Runner 50 zk.ko motoa Garcrean egon da eta ondo zainduto dago. 30-05-00 matriku-10.1.000 euro. **tr 943 74 20 04.**

## Bestelakoak

• Zilarrezko katea eta zintzilikarioa galdu ditut Kiroldegian. Alde batean Amaia clauka grabaida eta bestean, losu.tr **943 74 13 41. losu.**

• Erroiratzeko dituzuen altzariak jasoko nituzke. Egoera onean badaude, hobe. zr 943 74 **04 86,**

• Txakurkumeak oparitzen ditui. Hilabete eta erdi clauzkate. ss **630 93 10 93,** Jabier.

## Partikularrak

*DBHko ikasieentzat klase partikularrak ematen ditur. Esperientzia daukat.a **943 74 42 06.**

• Lehen hezkuntzako ikasgai guztierako Idaseak ematen dira (euskara, ingurugiroa, **mate...) zr943 74 20 57.** (21:00etatik aurrera)

## Garajeak

***Garajea** alokotzen dut Madalako etxeetan. 19:00etatik aurrera deitu. **zr 943 19 11 65.**

* **Garajea** salgai Arregitorre kalean. Bi **autorenizat lekua du. Prezio interesgarria.s 943 74 00 09.**

• **Garoje** ibcia salgai Olasoko Poligonoan. Martin. **630 63 79 78.**

## Agurrak

• Zorionak **Imanol Perezi,** marixoaren 3an 13 urte bete zitudako. Pilar ikastetxeko DBH1 mailakoen partez.

2002-111-8

# agurrak



*Zorionak Ainhoa Larraiiagari, martxoaren 10ean 7 urte beteko dituelako. EIgoibarko familiaren partez musu handi bat.



• Zorionak **Jonatani,** marbcoaren 5ean 16 urfe bete ziluelako. Familiakoen partez.



Zorionak **Sandra,** marblociren 6an 14 urte bete zenitueloko. Lagun Naiara eta Luciaren eta bereziki, Mikelen partez.



* Zorionak **Andoniri,** marixoaren 6an 6 urte bete zitudako. Arreba Maria eta Familiakoen partez.



* Zorionak **Aner Astigarragari,** gaur, rnorixoaren 8an, 5 urte bete dituelako, Etxekoen eto bereziki, aiixitxa eia amamaren partez.



* Zorionak **Francisco Jose Urbietari,** hilaren 10ean urteak beteka dituelako. Familiakoen, Juancarren eta Bullyren partez.



*Zorionok Unciri, martxociren 12an 15 urte befeko dituelako. Ama, Arkaitz, amama eta Markinalco osaba-izeben eta lehengusuen partez.



Zorionak **Josune,** martxoaren 4an 7 urte bete zenituelako. Efxekoen eta bereziki, Josebaren partez.



* Zuri ere fokatu jatzu BARRENian ataratzia, ehhl Estutu eder bal eta zuk nahi haina musu etxekuen partez.



*Zorionak **Iker Agirregomezkortari,** markoaren 5ean urfeak bete zituelako. Aitotxo, amabo, Ailzi eta bereziki, Andoni kiaren partez.





Zorionak **Jose Angel** eta **Mireia** zuen urtebete. tzean. Ondo posa egunak. Amaixoren partez.

**Oga.zte informazioa**

*Elgoibarko Gazie informazio Gunea Kultur Etxean.*
*Bigarren solairuan. TeL 943 741 461 Ordutegia:*
*Astelehena-asteartea- osteguna-ostirala: 17:00-20:00*
*larunbata: 10:00-14:00*

## BEKAK

**Ingelesa**
Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2.750 dirulaguntza eskainfzen ditu Erresuma Batuan eta Irlandan ingeleseko uda-ikastaroak egiteko. Beharrezko eskakizunen artean, erdi-mailako irakaskuntzako ikasle bekaduna izatea eta aurreko kurtsoa oso ongi notarekin gaindituta izatea. **Epea: martxoak 27.**

**Akerrian udan ikastaroak egiteko 350 Iaguntza**
Hezkuniza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eskutik, 2002ko uztailaren 15etik urriaren 15a arte atzerrian gutxienez hiru asteko egonaldia eta ingeleseko, Frantseseko edo alemaneko ikastaro bat egiteko 350 laguntza. Bekadun unibertsitarioentzal.
**Epea: martxoak 27.**

**Nazioarteko begiraleak**
Lan egiten duten bitartean ingelesa landu nahi duten gazteentzako programa bat sortu du YMCA-k, bere EEBBko kanpamentuetarako. Ekintza honetan parte hartzeko, 20 eta 27 urte bilarteko adina eta begirale legez esperientzia izatea eskatzen da.
**Epea: apirilak 6.**

## JARDUERAK

**Erakusketa**
Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, Per Barclay argazkilari norbegiarraren erokusketa dago ikusgai Koldo Mitxelena Kulturgunean, Donostian. **Epea: apirilak 20.**

## SARIAK ETA LEHIAKETAK

**Musika**
Leioako Udalak Pop Rock Il. Lehiaketa antolatu du. Gutxienez 5 abesti dittien maketa edo CD bat bidali beharko da.
**Epea: apirilak 26.**

Komiki **lekiaketa**
Santa Polako Udalok lValentzial gai libreko komiki-lehiaketa antolatu du. 30 uriefik beherako gazteei dago zuzendua. 1. saria, 600 euro; 2. saria, 300 euro; 3. saria, 150 euro.
**Epea: apirdak 30.**

**Ingurumen-sariak**
Caja Madrid-ek antolatulako deiaidi honen helburua, biodibertsitatearen eta ingurumenaren arloan zabalkunde-jarduerak sustatu eta ahalbidetzea da. Lanak gure biodibertsitatearen errespetua, hobekuntza eta ezagutzarekin erlazionotutako jarduerak zobalfzearen inguruko proiektuen aurkezpenean oinarriluko dira.
**Epea: martxoak 30.**

## LANA

**Uliazpi**
Uliazpi Fundozioak lehiaketa-oposizio bidezko ondoko lanpostuak atera ditu: Eguneko Zentroko ela Etxebizitzetako arduradun bat; eta Zentroko arduradun bat. Epea: martxoak 13,1ehen lanpostuarenizako eta, martxoak 14, bigarrenarentzako.

**Euskackko Oskestra Sinfonikoa**
Euskodiko Orkestra Sinfonikook zenbait lanpostu eskaini ditu: Biolin Tutti 1, Biola Tutti 1 eta Kontrabaxu Tutti 1. **Epea: martxoak 15.**

**Kulturako** bi laguntzaile
Eibarko Udalean Kulturako 2 lagunkaile kontratatzeko oposiziolebiaketa librea. Lanpostu bat laniardun osorako izango da eta bestea lan-jardun erdirako.I.Hleko titulazioa, Eskola Graduatua edo tituki baliokide bat izatea eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna izatea eskatzen da. **Epea: martxoak 14.**

**Administraria**
Oiartzungo Udalean administrazio-Funtzionario bat kontratatzeko oposiziolehiaketa. Batxilergoa edo Bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna eskatzen dira. **Epea: marbook 12.**

# agenda

I 8:30 ANTZERKIA
"Alizia Bitxikerien lurraldean" (euskeraz)
Taldea: Dar-Dar Produkzioak
Herriko Antzokian

## 8 BARIXAKUA

19:00 KONTZERTUA
Taldeak: "Disturbio" eta "Obligaciones"
Gaztetxean
Dohainik

## 9 ZAPATUA

14:30 EMAKUMEEN BAZKARIA
Herri Gain jatetxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea



16:00 V. P1LOTA EGUNA
Ikastolako frontoian
Antolatzailea: Elgoibarko Ikastola
21:00 BARRIKOTEA
Kimetz Elkartean.

## 10 DOMEKIA

11:30 GURASOENTZAT TOPAKETAK
Gaia: "Nola transmititu fedea gaur egun"
Hizlariak: Kristina Aizpurua, katekista, eta Miren Perez, Karitaseko Iankidea eta gazteen monitorea
San Bartolome Parrokian



## 14 EGUENA

15:00 IKUSENTZUNEZKOA
"Korea, Txina, amets baten bila"
Egilea: Angel Cuerdo Galarraga
Kultur Etxean
Iraupena: 50 minutu
Ondoren, elkarrizketa
Antolatzailea: Kutxa

## 15 BARIXAKUA

18:00 **ESKI IRTEERA ANDORRARA**
Plaza Handitik
Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkartea

## HITZALDIAK

**Elgoibarko Institutua eta Arrasate Mondragon Unibertsitatea elkarlanean**
Elgoibarko Institutuak Arrasate-Mondragon Unibertsitateak duen eskaintza aurkezteko hitzaldia antolatu du. Martxoaren 13an, eguaztenean, izango da Ezenarro Institutuko Areto Nagusian 18:00etan. Logse 2ko eta Goi Mailako Hezkuntza Zikloetako ikasle zein gurasoei zuzenduta dago. Bestalde, martxoaren I2an, martitzenean, "Nola orientatu eta aholkatu gure seme-alaba gaztea" konferentzia-eztabaida izango da Ezenarro Institutuko Areto Nagusian (Mekanikan). Saioa 18:30ean hasiko da. Guraso zein hezitzaileentzat gai interesgarriak direnez herritar guztiei joateko gonbidapena Iuzatzea nahi dute.

ZINE kluba



## "Me case anirextraño"

Zuzendaria: Bill Plymton.
Marrazki bizidunak

Ilustrazioaren eta marrazki bizidunen jeinu bat da Bill Plymton. Bere diseinuak Estatu Batuetako aldizkaririk garrantzitsuenetako portada izan dira, Egin dituen laburmetraiek ere sari rnordoa jaso dituzte Cannes 98 adibidez, edo Oscarretarako izendatua izan da. Bere lehen luzemetraian bikote ezkonberri bat da filmeko protagonista. Sena k botere paranormalak ditu eta emazteak ezin du egoera jasan. Umdit"'oso beltza erabiliz, biolentzia, akzioa eta sexua nagusi diren munduan murgilduko gaitu Plymtonen filmak. Marrazki bizidun tradizionalaren alorrean kultozko pelikula izatea lortu du.

2002-111-8

## KATEKESIA

**Gurasoentzat Topaketak Parrokian**

Donostiako Pio XII Erlijio Zientzietako Institutuaren laguntzaz, San Bartolome Parrokiak Katekesiako eta Astialdeko haurren gurasoentzat topaketak antolatu ditu. Martxoaren 10ean, 11:30etako mezaren barruan, "NoIa transmititu fedea gaur egun" izango da gaia eta Kristina Aizpurua katekista eta gurasoa eta Miren Perez, gazteen monitorea eta Karitaseko Iankidea, izango dira hizlariak.

## OSPAKIZUNAK

**49ko Kintoen bazkaria**

Datorren zapatuan, martxoaren 16an, 1949ko kintoen eguna ospatuko da. 13:30ean hildako kintoen omenezko meza egingo da San Pedroko ermitan. Meza Carlos Agirre Garagarzak emango du, 1949ko kintako kidea bera ere. I4:30ean anaitasun bazkaria egingo dute San Pedroko Arrillaga erretegian.

## OHITURAK

**Nagusien Tanborradarako deialdia**

Aurtengo Trinitate Jaietan, maiatzaren 25ean, hain zuzen ere, nagusien tanborrada egiten jarraitzeko asmoa dago. Hori dela eta, bertan parte hartzea nahi dutenen bilera, martxoaren 21ean, ostegunean, izango da Kultur Etxean 19:30ean. Antolatzaileek tanborradan parte hartu nahi duten neska mutil guztiak animatu nahi dituzte, nahiz elgoibartarrak nahiz beste herriren batekoak izan. Informazio gehiago behar izanez gero deitu **676 54 75 24** telefonora.

## 1RTEERAK

**Hendaia eta Hondarribira**

Jubilatuen Biltokiak txangoa antolatu du datorren apirllaren 10erako (eguaztena). Jubilatuen Biltokian izena ematert duten guztiak Elgoibartik aterako dira goizeko 8:00etan Plaza Handitik. Ondoren, Hendaia eta Hondarribira abiatuko dira eta kostaldeko herri polit hauek bisitatu ostean, Oiartzungo Gurutze Berri jatetxean bazkalduko dute. Etxera itzuli aurretik Donostian egingo dute geldiunea. Txangoaren prezioa 19 eurotakoa da.

**KARTELDEGIA**

**ELGOIBAR**
**Herriko Antzokian**
**"Juana la loca"**
8, barixakua: 22:15
9, zapatua: 19:30-22:15
10, domekia:19:00-22:15
11, astelehena: 22:15

**"Me case con un extratIo"**
**(zine kluba)**
5, asteartea: 21:30
14, eguena: 22:15,
**"Ocean's Ekven"**
15, barixakua: 22:15

**EIBAR, Unzaga**
"A mi madre le gustan las mujeres"
8. harixakua: 19:30-22:15
9. fapatua: 17:00-19:45-22:30
10, domekia: 17:00-19:45-22:30
11, astelehena:19:30-22:15
12. martivena: 19:30-22:15
13, eguaz, 111. :30-22:15
**ialto**
**"La Ultima** ProfeCia"

Q. rapatua:19:30-22:15
10, doinekia:19:30-22:15
11, astelehena: 19:30-22:15
12, martitzena: 19:30-22:

**BERGARA, Novedades**
"Ocean's Eleven"
8, zap a:
nekia: 1930-22:1
asteleliena:17:00

14, Eguena: 20:00 (Zine Kluba)

BARRENek ez du gertu litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## "Juana La Loca"

Zuzendaria: Vicente Aranda.
Antzezleak: Pilar Lopez de Ayala, Daniele Liotti, Manuela Arcuri.

Laredo, 1496ko abuztuaren 22. Itsas flota bat Flandesera abiatu da. Juana infanta Bruselako gortera eramatea da flotaren helburua, bertan ezkonduko baita beranduago Felipe Ederra gisa ezaguna izango den gizonarekin. Elkar ikusi orduko amodioaren txinparta piztuko da bi gazteen artean eta betebehar patikoak ahaztuz sentimenduei egingo diete kasu. Tamalez, patuak beste bide batzuk ditu aukeratuak bi maiteminduentzat. Juanaren anaia nagusien heriotzak eta bere ama, Isabel Katolikoa erreginarenak, Gaztelako erregina bihurtuko dute Juana

N

**Jse Antonio Osoro, Txomin Mujika eta Joseba konde**

# "Elgoibarko Bandak disko bat grabatu du Kondiarentzat"

*Kondia enpresaren 50. urteurreno aurten dela esan dizuegu lehenago ere. Hori dela-eta Elgoibarko Musika Bandak diska bat kaleratu du. Bertan, munduko musika biltzen da, Koncliarekin harreman komertzialak dituzten herrialdeetako musika, hain zuzen ere. Bandakoen hitzetan, ohore bat izan da cliska grabatzea eta gogoz eta ilusioz grabatutako doinuak era berean entzungo diren ustea dute. Diska kaleratu aurretik, Musika Bandako Jose Antonio Osoro eta Txomin Mujikarekin eta Kondiako Joseba Konderekin hitz egin dugu.*



### Diska hat kaleratuko du Musika Bandak aurki. Zer dela-eta?

Joseba: Kondiak 2002 urtian 50 urte bete bihar ditxu eta ospakizun bat ein bihar dogu. Hori dala-ta, gure komertzialak, Luis Laskurainek, proposau zaban Elgoibarko Bandiari disko bat grabatzeko eskatzia.

Txomin: Josebak diskuana proposau zigunian, hau esan nion: Gaur egun orkesta onenek grabau dabe musika klasiko guztia eta euskal musikiakin ere Euskadiko Orkestriak disko asko aterata daka. Baina mundu guztiko klientientzako disko bat zala ikusitxa, munduko musikia jasotzia idea egokixa zala pentsau genduan.

### Zenhat kanta bilduko ditu?

Jose Antonio: Danera 19. Asko martxak dia. Baina badia bestelakuak ere: Brasilgua samba bat da; Israelgua, judiuen kantuak; Kataluniakua, sardania...

Joseba: Kantuak aukeratzeko erabili dogun kriteriva hau izan da: harreman komertzialak ditxugun lurraldietako musikia hartzia. Pare bat exotikuak esatiarren, Txina eta Japoneko piezak diala esan leike. Gero, lehenengua, "Agur Jaunak" da eta azkena, Inazio Bereziartuak konposautako pieza bat.

Txomin: Aurten dia 100 urte Bereziartua Elgoibarrera etorri zala eta horregatik aukeratu gendun bere pieza bat.

Jose Antonio: Hemen dauden obrak grabaziuetan ineditunak dia asko. Bereziartuak eindakua, adibidez, grabauta dao, baina ez originala, hori Elgoibarko Bandiak bakarrik daka.

### Herriko handazaleek entzun aldituzte jadanik diskak biltzen dituen piezak?

Txomin: Bai, diskua grabau bihar genduanian ensaio danak honetxek prestatzen egon eta gero bi konziertotan jo genduzen diskoko piezak.

> **"Guretzat diskua graballia erregalo bat izan da 11**
> **Txomin Mujika**

### Non grabatu duzue CD hau? Noiz?

Txomin: Herriko Antzokixan. laz, martxuan 16 eta 17xan eta ekainan 19xan grabau genduan. Egun bakoitzian ixa hiru ordu. Katarain grabazio etxiakin ein dogu. Teknika aldetik ixa Julio Ig1esiasen pare ibili gera. Eszenarixo dana mikrofonoz beteta. Gero edizíva Nafarruan ein genduan, Azkaraten, eta gero, nahasketak Arrasaten. Gaur egungo teknikarik onenak aprobetxau ditxugu.

### Zer dela eta aukeratu du Kondiak Elgoibarko Banda?

Joseba: Elgoibar Makina Erremintan hiriburua izanda, bertako bandia aukerau bihar genduan. Kalian esan die badiala banda hobiak, baina Kondiantzako ez zakan inungo zentzurik beste banda bat aukeratziak. Gainera, Bandiak profesionalek bezela ein dau lan eta kobratzerako orduan, amateurrek bezeVa ein dabe, sinbolikoki.

### Zer suposatu du CD honek Elgoibarko Bandarentzat?

Jose Antonio: Euskal Herrixan danerako bandak daude eta disko bat grabatzia zenbat kostatzen dan jakinda, askok esan digute sekulako suertia euki dogula. Elgoibarko herrixantzat ere prestigio haundixa da.

Txomin: Guretzat erregalo bat izan da. Gu juango gera, etorriko dia gaztiak, baina diskua beti egongo da. Enpresian aldetik munduko erreztasun danak euki ditxugu. Bai partiturak erosteko eta baitxa grabau bihar zanian ere.

Jose Antonio: Kondiak partitura horrek Bandiari emateko detailia euki dau.




Spn Antoiin, 1 - P.O. Box 55 - Tel.: 34-943 748066 - Fax: 34-943 74 81 93 - Tel. Comercial: 34-943 74 82 39 - E 20870 EIGOIBAR (Spain)

GESTIO ESKOLA

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

## ZURE ETORKIZUNERAKO

## AUKERA EZIN HOBEA
## BERRITZAILEA ETA
## GIZARTEAREN ERREKONOZIMENDUA
## JASO DUENA: 0

# GESTIO **ESKOLA**




**ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN**
**LIZENTZIATURA BERRIAREN**

## AURKEZPEN SAIO IREKIA

***MARTXOAREN 13an, ARRATSALDEKO 6etan***

**GESTIO ESKOLAKO ARETO NAGUSIAN**

**IMH- SAN ROKE, 1 ELGOIBAR**

**TELEFONOA: 943 74 41 32**

**ZATOZ! EZ ZAIZU D** MU-LIKO